



Ebazpena, 2009ko maiatzaren 22koa, Hezkuntza sailburuordearena. Honen bidez, saskibaloiko kirol-teknikari titulazio ofizialak eskuratzeko erregimen bereziko irakaskuntzetan sartzeko probak egiteko deialdia egiten da.

Maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, kirol-irakaskuntzak ezartzen ditu VIII. kapituluan. Ikasketa horien araudia garatzen ez den bitartean, lehendik dagoen araudiak jarraituko du indarrean. Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak (BOE, 1998ko urtarrilaren 23koa) erregimen bereziko irakaskuntzatzat hartu zituen kirol-teknikari titulu ofizialak ateratzekoak.

Martxoaren 3ko 320/2000 Errege Dekretuak 7. artikuluan ezarri ditu titulu horiei dagozkien sarbide- eta promozio-baldintzak. Izan ere, erregimen bereziko irakaskuntzako tituluak diren aldetik, tituluari dagozkion baldintza akademikoak bete behar dira sartzeko, baita dagokion proba espezifikoa gainditu ere. Hala eta guztiz ere, eskatutako titulazio akademikorik gabeko batzuek ere izango dute sartzea: goi-mailako kirolariek edo urritasunak eta ezintasunak egiaztatzen dituztenek, baldin eta aipatutako Errege Dekretuaren 8. artikuluko sarrera-baldintzak betetzen badituzte.

Martxoaren 4ko 234/2005 Dekretuak (BOE, martxoaren 26koa) saskibaloiko espezialitateko kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluari dagozkien curriculumak ezarri zituen, baita irakaskuntza komunak eta sarrera-probak eta sarrera-baldintzak ere.

Ebazpen honen bidez, kirol-irakaskuntza horietan sartzeko probaren deialdia eta erregulazioa egiten da, 2009-2010 ikasturterako.

Horiek horrela, sailburuordetza honek hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Saskibaloiko kirol-teknikariaren tituluari dagozkien 2009ko sarbide-probaren deialdia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bigarrena.- Hartzaileak.

**1.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleak.**

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den beste titulu bat behar da, baita bosgarren puntuari ezarritako berariazko sarbide proba gainditzea ere.
- b) 1363/2007 Errege Dekretuaren hamabigarren Xedapenean Gehigarrian aipatzen diren baldintzetako bat egiaztatzen bada, nahikoa izango da sartzeko, izan ere, aurreko puntuari aipatutako baldintza akademikoaren balioa izango du.
- c) Irakaskuntzen maila ertaineko edozein espezialitateko azken ziklora sartzeko, beharrezkoa da egiaztatzea maila ertaineko hasierako zikloa gaindituta dagoela, dagokion kirol espezialitate edo modalitatean.

**2.- Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak:
Heldutasun-proba**

Aurreko atalean ezarritakoaz gain, adin-baldintzak bete eta ebazpen honetako zazpigarren puntuari adierazitako heldutasun-proba gainditzen duten ikasleek ere izango dute irakaskuntzetan sartzeko aukera.

Erdiko Mailan sartzeko, beharrezkoa da hamazazpi urte beteta izatea edota proba egiten den urtean bertan betetzea. Horrez gain, ikasleak irakaskuntza horiek egiteko behar diren gaitasunak dituela erakusteko proba bat gainditu beharko du. Proba horrek bi zati ditu: proba orokorra eta proba espezifikoa.

Hirugarrena.- Goi-mailako kirolarientzako sarrera-proben eta sarrera-baldintzen salbuespenak.

1.- Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 67 eta 85 artikuluetan eta urriaren 15eko 10/1990 Kirol Legearen 53 artikuluan zehazten denaren arabera, goi-mailako kirolaria edo errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzen duena salbuetsita egongo da kirol-irakaskuntza hauetara sartzeko behar diren baldintza espezifikoetatik.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren hamabigarren Xedapen Iragankorrari jarraituz, abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren babesean ezartzen diren titulu eta irakaskuntzen modalitate eta espezialitate berriak sortu artean, irakaskuntza hauetan sartzeko proba espezifikoak egitetik salbuetsita egongo



dira aipaturiko xedapenean zehazten diren kasuetan dauden pertsonak.

Laugarrena.- Urritasunak edo ezintasunak egiaztatzen dituztenentzako sarbide-proba egokituak.

1.- Pertsona urritu edo ezinduek eskabideak egiten badituzte eskubaloiko espezialitateko kirol-teknikariaren tituluari dagozkion irakaskuntzetan sartzeko, erakunde eskumendunek luzatutako minusbaliotasun-ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

2.- 1363/2007 Errege Dekretuaren hirugarren Xedapen Gehigarria betez, eta hala egokituz gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak pertsona adituen laguntza edo txostenak eskatu ahal izango ditu epaimahaiak izangaien urritasun-maila edo mugak aztertu, eta eskubaloiko espezialitateko irakaskuntzak atarramentu onez egin, ziklo bakoitzari dagozkion gaitasunak lortu eta lanean aritu ote daitezkeen baloratzeko.

3.- Epaimahai horrek, bidezko iritziz gero, egokitu egingo ditu aipatu egoeran dauden izangaiek gainditu beharreko berariazko sarbide-probak; nolana ere, errespetatu egingo dira esandako Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako helburuen funtsa eta Eskubaloiko espezialitateko Kirol-teknikariaren tituluari dagokion gutxieneko irakaskuntzen helburuak.

Bostgarrena.- Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako proba espezifikoek edukia. Kirol-teknikariaren irakaskuntzetarako sarbidea.

Saskibaloiko espezialitateko kirol-teknikarien irakaskuntzetan sartzeko proba espezifikoak eta kirol-baldintzak.

1.- Helburua eta egitura

Saskibaloiko espezialitateetako teknikarien irakaskuntzetara sartzeko proben helburua da izangaiek egoera fisiko egokia eta beharrezko abileziak dituztela frogatzea, aukeratu duten prestakuntzan emaitza onak atzeratzeko beste behintzat.

Probek bi zati dituzte:

- Lehen zatian, izangaiaren egoera fisikoa baloratuko da.
- Bigarrena, berriz, espezialitate bakoitzari buruzkoa izango da, eta izangaiek aukeratutako espezialitatean dituen abilezia espezifikoak baloratuko dira.

2.- Probak



Izangaiak aukera bakarria izango dute ariketa bakoitza egiteko, eta bakarka arituko dira, jendaurrean egingo den zozketaren bidez ezarriko den parte-hartzeko ordenari jarraituz.

2.1 Lehenengo zatia. Komuna bi espezialitateetarako:

- Helburua: Egoera fisikoa baloratzea.
- Edukia:
 - a) **Translazio-abiadura.** 50 metroko bidea egin, zoru berdindu eta trazatu zuzeneko eremu lau batean; gizonezkoek, 9,5 segundo baino gutxiagoan, eta emakumezkoek, 10,5 segundo baino gutxiagoan.
 - b) Beheko gorputz-adarren **muskulu hedatzaile nagusien potentzia.** «Jauzi bertikala» egin; gizonezkoek, gutxienez 32 zentimetrokoa, eta emakumezkoek, berriz, gutxienez 26 zentimetrokoa.
 - e) **Muskulu-potentzia orokorra eta hura hezur-palanketan aplikatzea.** Zutik eta geldi; baloi medizinala aurrerantz jaurti bi eskuez; 4,25 metro baino urrutiago bidali behar da. Gizonezkoentzako 5 kilogramokoa izango da baloi medizinala, eta emakumeentzako, berriz, 3 kilogramokoa.

- **Ebaluazioa:** Probaren lehen zatia gainditutzat joko da izangaiak osorik eta kasu bakoitzerako ezarritako baldintzetan eginda duenean.

2.2 Bigarren zatia, saskibaloiko irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoa da:

- **Helburua:** Espezialitateko abilezia espezifikokoak baloratzea, arau-hausterik egin gabe.

- **Edukia:** hiru ariketa-multzo ditu

- *Lehenengo multzoko edukiak:*

- Izangaiak zirkuitu tekniko bat egin behar du. Atal honetan adierazten diren ariketak izango ditu zirkuituak.

a) 15 metroko bidea lasterka egin, aurrera begira, baloiarekin boteak emanez eta zenbait norabide-aldaketa eginez.

a) 15 metroko bidea lasterka egin, aurrera begira, baloiarekin boteak emanez eta zenbait erritmo-aldaketa eginez.

c) Ahalik eta abiadura handienera 15 metroko bidea lasterka egin, aurrera begira, baloiarekin boteak emanez.



d) Hiru ibilbide egin, baloiarekin boteak emanaz, leku jakin batera pasatzeko. Ibilbide bakoitzean paseak desberdina izan behar du.

e) Bost "jaurtiketa libre" egin teknika egokia baliatuta.

f) Lurrean hanka egokia jarrita "saskira sartu", eta eskuineko eskuarekin "ahurpalaz" erako jaurtiketa egin.

f) Lurrean hanka egokia jarrita "saskira sartu", eta ezkerreko eskuarekin "ahurpalaz" erako jaurtiketa egin.

- Lehenengo multzoko ebaluazioa:

a) Ebaluatzaile bakoitzak 1etik 10era baloratuko ditu ariketa guztiak.

b) Proben bigarren zatiaren ebaluazioa egiteko, ebaluatzaileen balorazioen batez bestekoa kalkulatu da, eta gainditutzat joko da ateratako batez bestekoa 5 puntu edo gehiago bada, eta emandako denbora 3,30 minututik gorakoa ez bada.

Bigarren multzoko edukiak:

Defentsa-lerradurekin konbinatutako lasterketa bat egingo du. Lasterketa hori zoru irristagaitzean egitea gomendatzen da.

Izangaiak zutik egon behar du zoruan egindako marka baten gainean. Marka horren albo banatan, distantzia berean, altuera txikiko beste bi marka daude (zurezko takotxoak, konoak, etab.), eta markek, beren artean, bederatzi metroko tartea dute.

Seinalea ematean, aurrerantz korrituko du, marka horietako bat esku batekin ukitzeko (lerro etengabeko marra); jarraian, alborantz joango da -defentsa-teknika- beste aldeko marka ere eskuarekin ukitzeko (lerro bikoitzeko marra). Azkenik, aurrerantz korrituko du, hankarekin irteera-puntua ukitu arte (lerro etengabeko marra).

Bigarren multzoko ebaluazioa:

Bizkortasun- eta mugimendu-probetako ibilbidea 9,5 segundu baino gutxiagoan egin beharko dute gizonaek, eta 10,5 segundu baino gutxiagoan, emakumezkoek.

Hirugarren multzoko edukiak:

Araututako jolasleku-erdian, hiru hiruren kontra jolastuko dira gutxienez sei minutuan, honako irizpide hauek baloratu ahal izateko:

1. Eraso:



- Baloidun eta baloirik gabeko jokalarien posizioa eta kokapena.
- Balorik gabeko jokalaria erasotzailearen desmarkea.
- Baloirik gabeko jokalaria erasotzailea baloirik gabeko espazioan eta jokoan.
- Jolasean parte-hartze bizia izatea.
- Erasoaldien amaiera.

2. Defentsa:

- Baloidun jokalaria erasotzailearekiko defentsa.
- Baloirik gabeko jokalaria erasotzailearekiko defentsa.
- Defentsarako aurre hartzea.
- Erasotzaileen desmarkeak defendatzea.
- Defentsa-posizioaren kokapena eta orientabidea.

- Hirugarren multzoko ebaluazioa:

- a) Ebaluatzaile bakoitzak letik 10era baloratuko ditu ariketa guztiak.
- b) Proben bigarren zatiaren azken ebaluazioa egiteko, ebaluatzaileen balorazioen batez bestekoa kalkulatu da, eta gainditutzat joko da ateratako batez bestekoa 5 puntu edo gehiago bada.

Azken ebaluazioa:

- b) Proben bigarren zatiaren azken ebaluazioa egiteko, ebaluatzaileen balorazioen batez bestekoa kalkulatu da, eta gainditutzat joko da ateratako batez bestekoa 5 puntu edo gehiago bada.

Zazpigarrena.- Kirol-teknikarietarako sarbide-proben edukiak baldintza akademikorik betetzen ez duten ikasleentzat.

- Heldutasun-proba honetan parte hartu ahal izango dute azaroaren 8ko 1363/2007 Errege Dekretuak, kirol-teknikarien tituluak lortzeko irakaspenak araubide bereziko ematen dituenak, kirol-irakaspenetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleek. Aipaturiko errege dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako behin-behineko aldiaren emango diren kirol-prestakuntzetan sartu nahi dutenek ere parte hartu ahal izango dute.



- **Helburua:** irakaskuntza hauek emaitza onekin ateratzeko behar besteko ezagutza eta abilezia badela erakustea.

- **Edukia:** bi zati dituen proba bat: zati orokorra eta zati espezifikoa.

A) Zati orokorra. Bi ariketa ditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko ezagutzei buruzkoak.

1.- Lehenengo ariketa: gizarte- eta hizkuntza-esparrua
Ikasleak honako lau irakasgaietatik hiru irakasgairi dagozkien galderak aukeratuko ditu: Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa edo Frantsesa) eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira galderei erantzuteko.

2.- Bigarren ariketa: zientzia- eta teknologia-esparrua.
Ikasleak honako hiru irakasgaietako biri buruzko galderei erantzungo die: Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika. Gehienez ere, 2 ordu eta 15 minutu emango dira galderei erantzuteko.

Zati hau kalifikatzeko, bi ariketen kalifikazioen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da, eta 5 edo gehiagoko puntuazioa ateratzen bada, proba gainditutzat joko da. Probaren emaitza GAI/EZ GAI hitzen bidez adieraziko da. Ikasleak zati hau gainditzeko badu, irakaskuntza hauetara sartzeko probaren zati espezifikoa egin ahalko du.

B) Zati espezifikoa. Baldintza akademikoak betetzen dituzten ikasleentzako proba espezifikokoaren egitura, eduki eta irizpide berak izango ditu.

- **Azken ebaluazioa:**

Zatietako bat gainditzeko ez bada, proba gainditu gabe geratuko da. Proba osoaren kalifikazioa "ez gai" bada, inola ere ez da emango probako zatiren bat gainditu izanaren ziurtagiririk.

Zortzigarrena.- Proba espezifikokoak egin eta baldintza espezifikokoak baloratzeko epaimahaia.

1.- Hezkuntza Berriztatze zuzendariak izendatutako epaimahaia arduratuko da probak antolatzeaz, kontrolatzeaz eta ebaluatzeaz.

2.- Epaimahaia epaimahaiburu batek eta lau epaimahaikidek osatuko dute; epaimahaikideetako bat idazkari lanetan arituko da.

3.- Epaimahaiburuak bermatuko du sarbide-proben garapena Ebazpenean ezarritakoaren arabera egin dela.

4.- Idazkariak proben aktak jasoko ditu eta proba horien garapena Ebazpenean ezarritakoaren arabera egin dela ziurtatuko du. Epaimahaiburua ez dagoenean, haren ordezkaria izango da.



5.- Sarbide-probetan ebaluatzaile arituko direnek titulazio hau izan beharko dute:

Egoera fisikoa baloratzea.

Saskibaloia kirol modalitatean Goi-mailako kirol-teknikaria edo irakaskuntzarako horren baliokidea.

Abilezia espezifikokoak baloratzea:

- Goi-mailako kirol-teknikaria, dagokion espezialitatean.

Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleentzako probak:

- Bigarren Hezkuntzako irakasleak, probako ariketen espezialitatekoak.

6.- Epaimahaiak proposatuta, beharrezko aholkulariak izendatuko dira, dagokien espezialitatekoak.

Bederatzigarrena.- Sarbide-proban izena ematea. Epea eta lekuak

1.- Kirol-irakaskuntzan arituko den ikasleak heziketa-zikloa egingo duen ikastetxean bertan emango du izena sarbide-proba egiteko. Horretarako, ikastetxeko idazkaritzan eskuratuko duen inprimaki egokia erabiliko du.

2.- Proba euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da. Ikasleak izena emateko orrian adieraziko du bere aukera.

3.- Era berean, izena emateko orrian adierazi beharko dute ikasleek sarbide-proban garatzeko aukeratu dituzten irakasgaiak.

4.- Behin izena eman eta gero, ikastetxeek izena emateko orriaren kopietako bat Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaliko dute.

5.- Proba egiteko aretora sartzen den ikasleak bere burua identifikatu beharko du baliozko egiaztagiri batekin. Egiaztagiririk aurkezten ez duena probatik kanporatua izango da.

6.- Hona hemen probarako izena emateko epea eta lekuak:



IKASLEAK	Izena emateko epea	Izena emateko zentroa
Baldintza akademikoak BETETA zein BETE GABE	Ekainaren 1etik 19ra (biak barne)	"Fray Juan de Zumarraga" BHI (www.kteodurango.net)

Hamargarrena.- Sarbide-proba egiteko toki-egunak.

Tokia: Behar bezalako aurrerapenarekin emango da horren berri, Fray Juan de Zumarraga BHIko web orrian www.kteodurango.net edo ikastetxearen iragarki-taulan.

Sarbide-proba egiteko datak.

A) Baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak.

Zati orokorra:

- Eguna: Ekainaren 16a. Arratsaldeko 15:30

Berariazko zatia:

- Egunak: ekainaren 30a.

Hamaikagarrena.- Ikasleak onartzea.

1. Eskainitako plazak gehiago badira sarbide-probak gainditutako ikasleak baino, ondorengo onarpen-irizpideak erabiliko ditugu:

a) Maila Ertaineko lehenengo urratserako: izangaien Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola dossierra.

b) Goi-mailarako: lehen zikloko azken kalifikazioa.

2. Erreserbatutako plazen portzentajea:

Eskainitako plazetatik, gutxienez %5, ahalmen urritasunen bat dutenentzat izango dira.

Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, errendimendu handiko kirolarientzat izango dira. Kopuru honen barruan goi-mailako kirolariek izango dute lehentasuna.

Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, proba bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu dutenentzat maila ertaineko irakaskuntzetara sartzeko proben kasuan.

Eskainitako plazetatik, gutxienez %10, federazio-diploma edo, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuko 4. xedapen gehigarri eta 1. xedapen iragankorrari jarraituz, horren baliokidea dutenentzat izango dira.



3. Aurreko hiru baldintza horien bitartez betetzen ez diren plazak gainerako ikasleei esleituko zaizkie beraientzat ezarritako lehentasunaren arabera.

Hamabigarrena.- Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak aurkeztea.

1.- Hauek dira behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitara emateko lekuak: urriaren 27tik aurrera probarako izena eman duzun ikastetxeko iragarki-taula, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orria.

2.- Ikasleak probako kalifikazioa erreklamatu nahi badu, behin-behineko emaitzak argitaratu eta 48 orduko epearen barruan egin ahalko du. Erreklamazioa epaimahaiburuari aurkeztuko zaio, kirol-irakaskuntzetarako ikastetxe baimenduen idazkaritzen bitartez.

3.- Proba honen parte bat gaindituta edukitzeaz ez da ziurtagiri bat emango.

Hamahirugarrena.- Probaren balioa eta ziurtapena.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiria eskatu ahal izango du. Ziurtagiriak Estatu osorako balioko du.

Proba espezifikokoak gainditu izanak hemezortzi hilabeterako balioko du, probak amaitzen direnetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 22a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izpt.: María Antonia Ozcariz Rubio